



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA

FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

ERAIKIN II/ EDIFICIO II  
Oñati Plaza 3  
20018 Donostia- San Sebastián  
GIPUZKOAKO CAMPUSA

# Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak

## PRACTICUM III

### GIDA OROKORRA

**2023/2024 ikasturtea**

**Koordinatzaileak:**

Atzerriko Hizkuntza Minorra: Itziar Elorza

Euskara, Hezkuntzarako Tresna Minorra: Amaia Serrano

Haur Hezkuntzarako Tailerrak Minorra: Jon Martin

Hezkuntza Berezia Minorra: Marian Soroa

Lehen Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak Minorra: Lidia Caño

## AURKIBIDEA

1.	SARRERA	2
2.	IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA	2
3.	PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA	4
3.1.	PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK	4
3.2.	ARAU OROKORRAK	5
3.3.	PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA	5
3.4.	IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA	6
3.5.	BALIOZKOTZEAK	6
3.6.	KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK	7
3.7.	PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK	10
3.7.1.	Ikastetxeko koordinatzailea	10
3.7.2.	Ikastetxeko instruktorea	11
3.7.3.	Unibertsitateko Practicum IIIko koordinatzailea	12
3.7.4.	Unibertsitateko tutorea	13
3.7.5.	Ikasleak	15
4.	PRACTICUM IIIKO PROGRAMA	15
4.1.	HELBURUAK	15
4.2.	KONPETENTZIAK	16
4.3.	IKASKUNTZA EMAITZAK	17
4.4.	GAITEGIA	19
4.5.	EBALUAZIOA	20
5.	ERANSKINAK	22
5.1.	ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA (PRACTICUM III)	23
5.2.	ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM III)	25
5.3.	ERANSKIN III: EGUTEGIA BETETZEKO JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK	33

## **1. SARRERA**

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFAko) ikasketen Graduetan eskaintzen diren bi titulazioen (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) amaierako urtean garrantzi bereziki handia hartzen du Practicum IIIak: ikasleak hamabi aste egin beharko ditu eskola batean irakasle rola hartu, horretan jardun eta bere lanaren inguruan hausnarketa eginez.

Maisu-maistrei dagokien profilararen arabera, ikasleek beren jarduera garatzen den testuingurua aztertzeko eta planifikatzeko gai izango diren profesionalak izan beharko dute. Horretarako, irakaskuntzaren ulergarritasuna eskakizun indibidualekin batera uztartzeko gai izan behar dute eta, era berean, jakin Ikastetxeko Proiektuaren barruan, talde batean, lan egiten ere.

Practicum hau, beraz, heziketa ibilbidean guztiz txertatuta agertuko da, ikaskuntzarako adierazgarri eta kontrasterako iturri gisa. Halaber, praktikak zentzua ematen die horren euskarri diren eta horien bilakaera orientatu dezaketen ezagutza teorikoei. Hori dela eta, PIII honetan garrantzi berezia izango dute ikaslea egiten ari den Minorraren alorrean jarduteak eta bertatik jasoko duen esperientziak.

Era berean, ikerketarako gaitasuna ere adierazi behar luke, ondoren burutu beharko dituen azterketa sakonagoak egiteko gai izan dadin.

Beraz, ikasleak Practicum IIIaren bidez eskuratu beharreko helburu nagusia da heziketa prozesua bizitzea eta prozesu horrekin zerikusia duen ororen inguruan gogoeta egitea.

## **2. IRAKASGAIARENTESTUINGURUA**

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egiten dira. Practicum mailakotua izanik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasleak bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgaia (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, horiek aurrera joan ahala, kompetentzia mailak gora egingo du.

Practicumak emango dio ikasleari, Graduko beste irakasgaiekin uztarturik, bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

**Taula 1. Kronograma** (ikus egutegi zehatza HEFAko Practicum webgunean)

	<b>EGONALDIA</b>	<b>EPEALDIA</b>	<b>KREDITUAK</b>
PRACTICUM I	5 aste (30 ordu astean)	urria-azaroa	HH: 8 kr. LH: 9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (30 ordu astean)	otsaila-apirila	HH: 12 kr. LH: 11 kr.
PRACTICUM III	12 aste (30 ordu astean)	azaroa-otsaila	HH: 18 kr. LH: 18 kr.

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa parte-hartzaile orokorra egitea da, ordura arte ikasitakoa erabiliz, eta irakaspen horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu, batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa egitea da helburua.

Practicum IIIa, aurrekoez gain, Minorrarekin eta berrikuntza proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

## **PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA**

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2019ko irailean, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretuak, martxoaren 6koak, arautzen dute Practicuma.

### **2.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK**

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Practicum Dekanordetzak berariazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarrienak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Behin praktikak amaituta, Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkie ikastetxeetako inktoreei, ofizioz, 33/2018 Dekretuan ageri gisa.

Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko; hala, praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaia denez, Fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum Dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicum Azpibatzaordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Practicum Dekanordetzara eta Azpibatzaordera jo beharko du.

## **2.2. ARAU OROKORRAK**

- Ikasleak Eusko Jaurlaritzak EHU/UPVri esleitutako plazen artetik, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun bitartean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe-, denboraldi- edo ordutegi-aldaketak) HEFAIIko Practicum Azpibatzerdeari dagokio. Beraz, ikasleek aipatu Azpibatzerdeari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, HEFAn Kasu Bereziatarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera (<https://www.ehu.es/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak>).

## **2.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako Azpibatzerdeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

- Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.
- PI, PII eta PIIIaren hautaketa irizpide bakarra akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea.

- Haur Hezkuntza Graduko ikasleek PIIIa Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko lukete; eta lehen edo bigarren praktikaldietako bat, berriz, lehen zikloan. Lehen Hezkuntza Graduan ere bi ziklotan egin beharko dituzte praktikak ikasleek. Ikasleen erantzukizuna da plazak hautatzerakoan bi zikloetan izan direla bermatzea, bietan esperientzia bereganatu dezaten.

## 2.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA

Lehen aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzaren (EJ) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta EJk berak nahikoa plaza emango dizkio Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.

Ikasleek Gipuzkoan onarturiko praktiketako prestakuntza zentroyen eskaintzan hautaketa egingo dute, bere titulazioaren arabera, EJk Fakultateari esleitu dion plaza eskaintza zerrendatik abiatuta.

Practicum Dekanordetzak eskaintza argitaratuko du GAUREn eta ikasleek plaza eskaera egingo dute automatrikula garaian.

## 2.5. BALIOZKOTZEAK

Practicum irakasgai osoa edo egonaldia bakarrik baliozkotu daitezke.

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

**Taula 2. Baliozkotzeak**

<b>Irakasgaia</b>	<b>Irakasgai osoa</b>	<b>Egonaldia bakarrik</b>
<b>Practicum I</b>	HHko eta LHko diplomatua edo graduatua bada.	Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo

	Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian, Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada.	Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.
	Haur Hezkuntzaren kasuan, Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria (lanbide heziketa) ikasketak egin baditu.	
	Plan zaharretako Practicumak egin baditu.	
<b>Practicum II</b>	HHko eta LHko ikasketetan diplomatua edo graduatua bada	Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten bada.
	Plan zaharretako Practicumak egin baditu.	
<b>Practicum III</b>		Praktika denboraldian ikastetxe batean lanean ari bada ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, Minorren alorrean. Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu.

## 2.6. KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK

Arau orokor gisa, Practicuma enborreko irakasgaia da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopurua ditu zehaztuak.

Ikasle batek Practicuma ezarrita dagoen moduan bete ezin badu, bere egoera “Kasu Berezi”tzat hartu daiteke. Honako kasuak hartzen dira aintzat:

1. Ikasketak eta lana uztartu behar duten ikasleak.<sup>1</sup>
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.<sup>2</sup>
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.<sup>3</sup>
4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak.<sup>4</sup>
5. Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.

<sup>1</sup> UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10. artikulua arabera:  
[https://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/UPVEHUko\\_Ikasleen\\_Arautegia.pdf](https://www.ehu.es/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf).



<sup>2</sup> UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8. artikulua arabera. <sup>3</sup> UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9. artikulua arabera. <sup>4</sup> UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6. artikulua arabera.

6. arapenerako Lankidetzaren programetan parte hartzen duten ikasleak.
7. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
  - a. Gaixotasunak, istripuak
  - b. Arazo administratiboak
  - c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera horietako batean egongo den ikasleak eskaera formala egin beharko du bere egoera “Kasu Berezi” bezala kontuan har dadin. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik.

Egoera horien aurrean ikasleak egin ditzakeen **eskaera motak**:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

**Prozedura** honako hau izango da:

1. Ikasleak kontenplazten diren Kasu Berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du (<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak>) eta, hala dagokionean, **Egutegi proposamena** egingo du erdua jarraituz (III. Eranskina).
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum Azpibatzerdeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da (<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak>).
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta, zentroak egoera edo Kasu Bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta kanpoko instruktoreari

komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak onartzen ez baditu, beste zentro bat bilatu beharko da.

8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta baldintza orokorrak bete beharko ditu.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten Kasu Bereziak eskara guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

#### **OHARRAK:**

- Gradua amaitzeko 3 irakasgai edo gutxiago falta zaizkien eta Practicum IIIa lehenengo lauhilekoan egin nahi duten ikasleek ezohiko epea izango dute, eta epe hori irailaren amaieran zabaldu eta abendu amaieran amaituko da (12 aste). Epe horiek ezingo dira ez aurreratu, ez atzeratu. Bere egoera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
- Practicumaren data aldatzeak ez du baimentzen ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgai batzuetara huts egitera.
- Egonaldiaren egutegia edo ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke, baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintze aldera.

Egonaldia honako modu honetan luza daiteke, adibidez:

<b>IRAKASGAIA</b>	<b>EGONALDIA</b>	<b>ASTE KOPURUA</b>
Practicum I	goizez bakarrik	10 aste
Practicum II	goizez bakarrik	14 aste
Practicum III	goizez bakarrik	24 aste

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.

- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik. Goiza bi orduko bi bloketan banatuko da eta arratsaldea bakarrean.
- Ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da eskolan. (Ikus webgunean jasota dagoen "Egutegi ereduan" <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/haur-hezkuntza-eta-lehen-hezkuntza-graduak> eta III. eranskinean)
- **Salbuespenak:**
  - Dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.
  - Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, salbuespen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da. Salbuespeneko ikasle batek Unibertsitateko irakasleak eskatutako lanak egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

## 2.7. PRACTICUMEN PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

### 3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea

Bere ikastetxean praktiketan dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura Practicumaren koordinatzailearena izango da eta, halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egokiak diren harremanak egitea.

Aitortutako zentroko zuzendariak, bertako ordezkari gorena den aldetik, ikastetxe horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta ikastetxeko instruktoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

### **Eginkizunak:**

- Practicuma egiten ari diren ikasleei hezkuntza zentroan egin beharreko egonaldia

erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.

- ezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan, eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikastetxeko instruktore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duen eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Practicuma egiten ari diren ikasleen ikastetxeko instruktoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Zentro hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek zentroaren bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

### **3.7.2. Ikastetxeko instruktorea**

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea eta bere tutoretzapeko ikaslearen Unibertsitateko tutorearekin lankidetzat estua izatea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriak buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Instruktoarak, UPV/EHUko tutorearekin batera, informazio eta orientazio egokia eskaini behar die ikasleei, prozesuan zehar, gaitasunen eskuratzeko mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestatzea izatera eduki dezan. Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza

eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.

- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketara dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea eta hau txosten batean biltzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz. Txosten hori UPV/EHUko tutoreari helaraziko dio eta ikasleari ere helaraziko zaio, tutorearen bidez.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak (Practicum-GRALerako) presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen kompetentziak ebaluatzeko azken balioespena egitea eta, balioespena negatiboa denean, horren argudioak zehaztea instruktorearen ebaluazio orrian.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak, gertatu ahala, unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Prozesuan zehar practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

### **3.7.3. Unibertsitateko Practicum IIIko koordinatzailea**

Practicumaren koordinazio lanak hauxe eskatzen du:

- Practicumeko Azpibatzerde kidea da.
- Koordinazio eta kudeaketa akademikoaren arduraduna da, tutorearekin batera.
- Gidako zereginen planifikazioaz arduratzen da, baita praktikaldiko koordinazioaz eta Practicum IIIko ebaluazio eta hobekuntza proposamen orokorrak egiteaz ere. Ikasleen esleipenaz arduratzen da.

- Gidak eguneratzen ditu.
- Batzordearen laguntzaz, koordinatzaileak tutoreak eta instruktoreak egin beharreko laguntza eta jarraipen prozesua zehaztuko du; bertan, agenteen arteko (ikaslea, tutorea, instruktorea) komunikazio uneak espezifikatuko dira, baita ikasgaiari dagozkion zeregin nagusiak entregatzeko data garrantzitsuak ere, laguntza eta jarraipen prozesua egoki gara dadin.
- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatzen ditu eta informazio eta formazio beharrak identifikatu eta Azpibatzaidera eramaten ditu.

#### **3.7.4. Unibertsitateko tutorea**

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasketen enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Dekanordetzak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bilera eta formazio saioetara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura.
- Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezkeen, betiere ikastetxeko instruktorearekin lankidetzan estu batetik abiatuta.
- Praktiketara ari diren ikasleekin prestakuntza-mintegiak antolatzea: lehenengoa, praktikak hasi baino lehenago; azkena, praktikak amaituta edo amaitzear direnean; eta tartean, beharrezkoak ikusten diren bakarkako edo taldeko bilerak.
- Ikasleei Practicum programa azaltzea.
- Bere ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, zentroetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Harremanetan jartzea instruktorearekin eta ikaslearekin, prestakuntza proiektuaren garapeneraren eboluzioa ezagutzeko eta, hala behar bada, hobekuntza neurriak ezartzeko.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktikaldiari ekin baino lehen. Praktiketako kompetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza proiektua egitea.

- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentziasunaren garrantziaz oharraraztea ikaslea.
- Practicumaren heziketa prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Tutoreak, instruktorearen laguntzaz, informazio eta orientazio egokia eskaini beharko die ikasleei gaitasunen eskuratze mailari buruz eta haien ikaskuntza prozesuan iradokitako hobekuntzei buruz, ebaluazioak prestakuntza izaera eduki dezan.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko instruktore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicuma kalifikatzea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleen praktiketako tutorearekin harremanetan egotea. Hiru aldiz jarriko da harremanetan erakundeko instruktorearekin, gutxienez: lehendabizikoa, praktiken hasieran; bigarrena, praktiken zikloaren erdialdean; eta, azkenekoa, praktikak amaitu baino lehen.
- **Bisitak ikastetxeetara:** Practicum IIIak irakaskuntza-aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzara harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Batetik, ikastetxeko maisu-maistren lana bertatik bertara ezagutzeko eta baloratzeko aukera ematen du, eta bestetik, zubiak eraikitzen dira unibertsitatearen eta ikastetxearen artean. Horrenbestez, praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio-bisita bat edo gehiago egingo ditu. Honako hauek izango dira bisita horren funtzioak eta edukiak:
  - 1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzeko eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.
  - 2.- Ikastetxeko instruktorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak adostea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.

### 3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

#### 3.7.5. Ikasleak

Practicumak hauxe eskatzen du:

- Practicumaren faseak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horren araudia errespetatzea.
- Zentroko eta unibertsitateko tutoreekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak izatea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoak jarraiki, prestakuntza eta ebaluazio jarduerak egitea.
- Praktikak egingo diren enpresa edo erakunde publiko nahiz pribatuarekin edo unibertsitatearekin kontratu bidezko harremanik ez edukitzea, non eta praktikez arduratzen den Dekanordeak berariaz baimentzen ez duen.

## 4. PRACTICUM IIIKO PROGRAMA

### 4.1. HELBURUAK

Haur nahiz Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte gelako lanean eragiten duten curriculum diseinuetan jasotako esparru guztiak. Edukien konplexutasun maila egokia finkatu beharko dute eta horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan; uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuko dira.



Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.
3. Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio-funtzioak betetzea.

#### 4.2. KONPETENTZIAK

Hezkuntza Graduak maisu-maistra gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko kompetentziak:

**Taula 3. Practicum IIIko kompetentziak eta deskriptoreak**

<b>PRACTICUM IIIko KONPETENTZIAK</b>	<b>DESKRIPTOREAK</b>
Ingurune sozialeko eta hezkuntza komunitateko lankidetzaren modu ezberdinak ezagutzea.	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN
Haur (0-3 eta 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) taldeetako elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea.	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK
Ikastetxe batean sor daitezkeen jardueraren eremu ezberdinetako hobekuntza proposamenetan parte hartzea.	HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA
Praktika jardunetik hausnartzea, irakaskuntza-jarduneko ahulguneak eta	PRAKTIKAREN HAUSNARKETA

KONPETENTZIAK (deskriptoreak)	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK	
<b>LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN</b>	Minorraren alorretik, ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen inguru soziokulturalean parte hartzea	Hezkuntza komunitatearen eta inguruko gizarte eragileen arteko harremana bultzatzeko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO <sup>1</sup> Bisita	
	Ikastetxeko taldean parte hartzea, minorraren alorretik dagozkion zeregin profesionaletan inplikatur	Hezkuntza komunitateko parte diren guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu	ITEO Bisita	
		Parte hartzen du irakaskuntza kalitatearen hobekuntzen sorkuntzan eta garapenean, ikerketa pedagogikoan eta irakats-jarduera hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean.	ITEO MEP	
	Ikastetxeko taldean parte hartzea, minorraren alorretik dagozkion zeregin profesionaletan inplikatur	Hezkuntza komunitatean lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu.	Bisita ITEO	
		Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketaren, argudioaren, negoziazioaren eta adostasunaren bidez .	ITEO Bisita	
		Praktikak burutzen ari den mailako eta zikloko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO Bisita	
		Norbanakoaren garapen integrala lortzeko maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu.	Egunerokoa MEP <sup>2</sup> Mintegia Foroa	
	<b>ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK</b>	Minorraren alorretik, ikasgelako taldearen antolaketa eta dinamika aztertu eta parte hartzea	Ikaste antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituen estrategiak erabiltzen ditu.	ITEO MEP
			Balioetan oinarritutako hezkuntza eta garapen sozio-kognitiboa ahalbidetzen ditu.	ITEO MEP
			Ikasleak, egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu, ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko.	ITEO MEP
Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak ezartzen eta erregulatzen ditu.			ITEO Bideoa	
		Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta ikasleen arteko errespetuzko jarrera sustatzeko	ITEO Bisita	

<sup>1</sup> ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria..

<sup>2</sup> MEP: Memoria/Ebidentzia karpeta/Portfolio.

<b>HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA</b>	Programazio unitateak edo bestelako hezkuntza esku-hartzeak planifikatu, burutu eta ebaluatzea minorraren alorretik.	Pedagogia lerroa, antolaketa eta gela barruko dinamika aztertzen eta interpretatzen ditu, minorrean eragiten duten alorrei erreparatuz.	MEP Mintegiak Foroa		
		Praktika garaian garatzen diren programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz.	MEP Mintegiak Foroak		
		Klaseak prestatzen eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiarekin eta baliabide egokiarekin bat eginez.	MEP Bideoa		
		Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratuak eta prestatzen ditu materialak eta baliabide didaktikoak.	ITEO MEP		
		Tutorizazio bileretan, maisu-maistren laguntzaile gisa, eta ikastetxeko bestelako bileretan (maila, zikloa, klaustroa) parte hartzen du .	ITEO MEP		
		Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea	Ikastetxean martxan diren plan, proiektu eta esperientzia berritzaileak ezagutzen ditu eta minorrean eragiten duten alorrak antzematen ditu beraz.	MEP Mintegiak Foroa	
			Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du .	MEP	
		<b>PRAKTIKAREN HAUSNARKETA</b>	Irakaskuntza praktikaz hausnartzea minorraren ikuspegitik	Egindako behaketen eta norberaren esku-hartzearen inguruko hausnarketa egiten du, lanbidearenak diren azterketa irizpideak erabiliz.	MEP Mintegiak Foroa
				Ikastetxeko tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte hartzeaz eta hobetze aukeraz hausnartzen du.	Bisita Mintegiak Foroak
Minorreko ezagutza teorikoak praktika profesionalarekin erlazionatzea	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan bizitako egoerarekin eta bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu.		MEP Mintegiak Foroak		
	Ikastetxean antzemandako kompetentzia profesionalen eta horren inguruan norberak dituen arteko antzekotasun eta desberdintasunak behatzen eta egiaztatzen ditu.		MEP Mintegiak Foroak		

indargunez ohartzeko eta baita ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren mugez ere.

### **4.3. IKASKUNTZA EMAITZAK**

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jarduera multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratorritzen diren “ikaskuntza-emaitza” deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza emaitzek zehaztasun maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluazioako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori guztia ondoko taulan jasotzen da:

#### **Taula 4. Konpetentziak, I.E., E.A.k eta ebidentziak**

### **4.4. GAITEGIA**

#### **1. gaia: Hezkuntza praktika eta ikaste-irakaste prozesuaren balorazio kritikoa**

- Ikasgela: ikastetxeko instruktorea, gelaren antolaketa eta dinamika, komunikazio prozesuen erregulatzea.
- Kasuen diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak.
- Hezkuntza lankidetzak: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak.

- Kudeaketa lanak.

**2. gaia: Proiektu didaktikoen eta hezkuntza programen (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak...) diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa, Minorraren alorretik**

- Prozesuaren definizioa: proiektuaren edo programaren garaiak.
- Arazoaren azterketa eta definizioa.
- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia.
- Garapena eta diseinua.
- Burutze edo ezarpena.
- Emaizten azterketa eta hobekuntza proposamenak.

#### **4.5. EBALUAZIOA**

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: batetik, unibertsitateko tutoreak eta, bestetik, Practicuma egin den ikastetxeko inktoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan: unibertsitateko tutorearen ebaluazioak, azken notaren % 70a balioko du. Gainerako % 30a ikastetxeko inktoreak baloratuko du.

Aldeko ebaluazioa duten praktikak ikaslearen Tituluaren Gehigarri Europarrean (TGE) jasota geratuko dira. Kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko Dekanotzan, 10 eguneko epean.

Irakasgaiaren beraren kompetentziak lortzea da Practicumaren helburua, eta horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat, gainditzen ez badu, ikaslearen azken nota Suspentsoa izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ezohiko deialdian ez aurkeztua izango du. Ezohiko deialdian ere gainditzen ez badu,

Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean. Gainditutako zatiaren nota ez da hurrengo ikasturterako gordeko; hau da, ikasleak matrikulatu eta praktiketako egonaldia eta lanak berriro egin beharko ditu.

- Ondorengo taulan ikus daitezke *suspentsio* eta *ez aurkeztu* nota jaso dezaketen egoerak eta kasu bakoitzean egin beharrekoa:

PRACTICUM III		EBALUAZIOA	
Praktikaldiko egonaldia	Tutoreak bidalitako lanak	Ohiko deialdian jarri beharreko nota	Ez ohiko deialdian jarri beharreko nota
Suspentso	Gainditua	Suspentso	Ez aurkeztua
Gainditua	Suspentso	Suspentso	Gainditu dezake lanak eginez gero
Gainditua	Ez aurkeztua	Ez aurkeztua	Gainditu dezake lanak eginez gero
Ez aurkeztua	Ez aurkeztua	Ez aurkeztua	Ez aurkeztua

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietara bertaratzea. Arrazoitu gabe bi orduko zazpi bloketan (goiz edo arratsalde) huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan % 80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Gutxienez bi ikastetxetan egin beharko ditu praktikak ikasle bakoitzak.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuak eta, beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

## 5. ERANSKINAK



**5.1. I. ERANSKINA: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA  
(PRACTICUM III)**

IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA: .....

IKASLEA: .....

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio Irizpideak ikasleek lortu behar dituzten kompetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko instruktorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabearen irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
<b>LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEA N</b>	Hezkuntza komunitateko guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu.
	Irakaskuntza kalitatea hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean parte hartzen du.
	Lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta kompetentziak adierazten ditu.
	Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketen eta adostasunaren bidez.
	Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du.
	<b>BALORAZIO OROKORRA: (1-10)</b>

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
<b>ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK</b>	Antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituzten estrategiak erabiltzen ditu.
	Egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu jarduerak ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko.
	Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak menperatzen ditu.

	Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan.
--	--

	Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta giro egokia sustatzeko.
	<b>BALORAZIO OROKORRA: (1-10)</b>

<b>KONPETENTZIA</b>	<b>EBALUAZIO ADIERAZLEAK</b>
<b>HEZKUNTZ A ESKU- HARTZEAK</b>	Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak.
	Eskolak baimendutako Tutorizazio bileretan eta ikastetxeko bestelakoetan parte hartzen du maisu-maistren laguntzaile gisa.
	Klaseak prestatu eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez.
	Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du.
	<b>BALORAZIO OROKORRA: (1-10)</b>

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

**SINADURA:**

.....(e)n, 202.....(e)ko .....ren ..... (e)(a)n

## 5.2. II ERANSKINA: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM III)

IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

.....

IKASTETXEA: ..... Ikasturtea:.....

IKASLEA: ..... Gradua:.....

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko kompetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

### UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
<b>ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK</b>	Maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu.	
	Gelako dinamikan komunikazio prozesuak eta ikasleekiko harremana ahalbidetzeko teknika egokiak ezagutzen ditu.	
	<b>BALORAZIO OROKORRA (1-10):</b>	
<b>HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA</b>	Programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz.	
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetako bere parte-hartzearen azterketa egokia egiten du.	
	<b>BALORAZIO OROKORRA (1-10):</b>	
<b>PRAKTIKAREN HAUSNARKETA</b>	Egindako behaketen eta esku-hartzearen inguruko hausnarketa egiten du.	
	Tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte-hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du.	
	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu.	
	<b>BALORAZIO OROKORRA (1-10):</b>	

**IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)**

<b>KONPETENTZIAK</b>	<b>LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN (1-10):</b>	
	<b>ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK (1-10):</b>	
	<b>HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA (1-10):</b>	
	<b>BALORAZIO OROKORRA (1-10):</b>	

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

**SINADURA:**

.....(e)n, 202.....(e)ko .....ren ..... (e)(a)n

### 5.3. ERANSKIN III

#### EGUTEGIA BETETZEKO JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK:

1. Proposatzen duzun egutegian guztira Plerako 150 ordu bete behar dituzu, 210 PIIrako eta PIIIrako 360 ordu.
2. Astean gutxienez 15 ordu bete behar dituzu.
3. Proposatutako egutegiak, dagokizun Practicumaren hasiera datarekin bat egin behar du
4. Astean gutxienez bi goiz osoz ikastetxera joango zarela ziurtatu behar duzu.
5. Ordutegia bi orduko hiru bloketan banatzen da. Goiza bi bloketan (jolas-orduaren aurretik eta jolas-orduaren ondoren) eta arratsaldea bloke batean (bazkal ondorengo ordutik amaierara arte). Bloke horiek ezin dira apurtu, hau da, bloke horietako bakoitzaren sarrera eta irteera orduak errespetatu behar dira. Adibidez, goizean practicumetik goizago irten behar baduzu, atsedenaldiaren tarte baliatu beharko duzu joateko, inolako kasutan ez da onartuko saioak hasita daudenean gelara sartu edo ateratzea eskatzen duen proposamenik.

Lehen astea	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	ORDUAK GUZTIRA
1. BLOKEA (2 ordu)						
JOLAS-ORDUA						
2. BLOKEA (2 ordu)						
BAZKAL-ORDUA						
3. BLOKEA (2 ordu)						

Bigarren astea	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	ORDUAK GUZTIRA
1. BLOKEA (2 ordu)						
JOLAS-ORDUA						
2. BLOKEA (2 ordu)						
BAZKAL-ORDUA						
3. BLOKEA (2 ordu)						

**ERANTSI ASTE GUZTIETARAKO DAGOZKIEN TULAK AURREKO BI ASTEETAKO EREDUAK JARRAITUZ**